

SAN ROKEREN ERMITEA. Durango (Bizkaia)

GURUTZI ARREGI AZPEITIA

Dpto. Etnografía Instituto Labayru.

SAN ROKE

Izena: San Roke da. Jendearen gogorapenean beti izan dau izen bardina.

GEOGRAFIA XEHETASUNAK

Herriz, bere izena daraman Durangoko San Roke auzoan dago.

Eleizaz, Bilboko-Eleizbarrutiaren laugarren bikal-barrutiari, TABIRA alderdiko Santa Ana parrokiari dagokio.

Lekuz, Bitaño mendiaren Ipar-Sortalde egalean dagoan uralde eta baserri bitartean kokatzen da.

Durangotik Orozketara eta Larrinagatxura garoazen bide bien ezker aldean Durangoko erdi-gunetik kilometro batera. Itxaso-neurritik 160 metro gora.


Inguruaren azalpena: Ermita aurrean Durangoko San Agustin Eritetxetik hasita Ermitaraino joian kalzadaren zatiak aurkitu daiegun. Prozesioak bide honexetatik izaten ziran.

Ermita ondoan harri-landubako hesi txiki batek mugatutako landa ederra dogu, bertan hiru leizar eta hiru astigar doguzala.

Oraintsurarte, Ermitaren ekialderantz begira dagoen horman Bitañoiko metal-ura ekarren iturria egoan.



Exterior
de la ermita
de San Roque.



- P: Plátanos
- F: Fresno
- T: Tilos
- B Bancos de piedra

SAN ROQUE DE DURANGO
 Laboratorio ETNIKER-BIZKAIA
 J. Ignacio García Muñoz
 Julio 1987

Ermitaren Iparralderantz eta Ekialderantz dagozan hornei deusiela harrizko jezarleku bi be badira oraindik.

Ermita aurrean soloak eta bidearen bestekaldean Alanbret (balde lantegia) eta Funbarri (burni-labak) doguz.

Ermitaren eskuinaldean oraintsu barriztutako San Roke baserria ikusi daikegu.

San Roke Auzoari dagokiozan baserriak honexek doguz: *San Roke*, *Siritxa-biekoa*, *Etxebarri*, *Txopitea*, *Bustintza*, *Kabillua* (bera egoen lekuan orain txalet bi dagoz) *Kabilluoste*, *Momotzo-goikoa*, *Momotzo-bekoa*, *Urbilla*, *Zabalekoa*, *Arribalau*, *Seizabal*, *Urbide*, *Otamotza* eta *Kareaga*.

Ermita ondoko landan aretxak eta platanondoak dagoz.

Ermitatik hurrun dagozanak baina halan ta guztiz ere Zabalarra auzoko baserriak "Erretatxuena", "Elo-rixuena" eta "Etxebarri" doguz.

Ermitatik 500 metrotara eta "Kabilluko iturrixe" izeneko iturri ondoan oraintsu egindako etxe-bizitza taldea dago.

Ermitatik ikusi daikeguzan mendiak Gallanda, Goiuria, lurretako Barrainkugana eta Garaiko San Juan dira.

Ermita atzean *San Roke-buru* deritxon mendibizkarra dago. Ermita ondoan dagoen soloaren izena *infierno solo* da eta *San Roke* baserriaren ondokoarena *Etxe-ostie*.

Nora begira: Ermitaren aurrekaldea Iparralderantz begira dago.

ARKITEKTURA ETA ARTE XEHETASUNAK

Ermitak eraikitza errektularra dau Mendebaldean eleizpea dauala.

Eraikingaiak: Errekarriz, harlanduzko hegalez eta baita harlanduzko euskarri gurutzatuz egina dago.

Teilatua: Hormetan eta euron gaineko langetan datza teilatua. Ermitaren norabide bardinean dagozan ixurki nagusi bik eta abside eta koru-gainean ezartzen diran beste ixurki txiki bik osotzen dabe teilatua.

Teilatua egurrezkoa da eta langa oker nagusi biren gainean datza. Ondorengo habedia habe txikiz hormaturik dago eta teilaz jantzia.

Ateak: Etxeak, zureri lodi bati jositako olezko ate bi ditu. Bata, Iparraldera begira eta bestea, aterpera joatekoa eta bietatik zaharrena dirudiena, Mendebalderantz begira.

Ate honen kanpo-aldean baina aterpean harrihutezko eskilara batzuk eta aterpetik urtetzeko atea dagoz.

Espadaña: Iparraldera begira dagoan ate gainean, teilatu aldean, Ermita baino askoz geroago egindako kanpontorrexikia dogu, hauxe ere harrizkoa. Gurutzea eta mailuz landutako burdinezko hai-zorratza ditu, hiru bolaz horniturik. Bertan, hauxe agertzen da idatzirik: "Año 1856".

Ur-bedeinkatuaren ponte: Ate banatara doguz ur-bedeinkatu harriak. Bata Iparraldera begira dagoan horman ezkerrean eta bestea Mendebalderantz dagoanaren eskuinaldean. Lehenengoz aitatu dogunori baino urrunago, oso osoan hormatik kanpo, moldura barik eta hainbeste landubako beste bat



Vista general del interior de la ermita de San Roque.

dago. Gurutzea, ateak inguruan daukan harri-landuari ikusi daikegu irarkita.

Ermita barrua:

Leihoak: Ermitak leiho txiki bi ditu eta honen gainean beste leiho biribiltxo bi ere, Ekialdeko horman, aldare ondoan.

Hegoalderantz begira dagoan horman leiho nagusi bat dogu, errektangularra eta altaretik hurren dagoana.

Mendebaldeko horman, koru aldean, aterpeko estalpe gainean beste leiho errektangular bat dogu.

Zorua: Ermita harri-hutsezko zintarri gainean egina dago.

Hormak: Hormak armaituz jota dagoz eta harrien arteko lotuneak biribilduta daukiez. Horma-alde batzuetan santuen irudiak ikusten doguz zintarriek hormatik kanpo urtetzerakoan egiten dabezan baldatxoetan.

Aldare-aurrea beste guztia baino maila bat gorago dago. Aldarea, hau baino beste bat gorago.

Aldare-aurrea, eskuin eta ezkerretatik, burdinlanduzko esku-banda edo baranda batek mugatua dogu.

Kurpitua: Ezkerretatik eta aldare-aurre ondoan errekarizko oinarri ganean burdinlanduzko eta irarkitako txapaz egindako baranda edo esku-baranda batek osotzen dan kurpitua.

Aldarea eta Atrila: Aldarea eta Atrila are-harriz eginak doguz eta oraintsu egindakoa da.

Korua: Egurrezkoa da eta hormeei eta erdi inguruko zubatea eusten dagoan habe lodi baten gainean dago. Esku-baranda edo baranda ederra dauka eskudel, taldoi eta beso batek horniturik, daukien zur guztia landurik eta danen artean gurutze ederra osoturik. Eskilarak hasieran harrizkoak dira baina goikaldean zurezkoak.

Ur-bedeinkatuaren ponte: Barrukaldean Iparralderantz dagoan atearen ezkerretatik ur-harri biribil polit bat dogu hormatik kanpo edo hormari deustala. Ur-harriaren behekaldeak txirla antzeko marraz ditu.

Atabaka: Eskumatara eta horman eskegita "Limosna para San Roke" dinoen zur baltzeko atabaka ikusi daikegu.

Imajinak

Roke deunarena: Ipar-aldera begira dagoan atetik aurrez-aurre sartuz, Roke deunaren aldarea dogu. Harri leun-leunezko eta oraintsu egindako aldare soila da. Burdinezko gurutzea dauka eta beronen



San Roque. Imagen titular de su ermita en Durango.

ganean, eta harrizko balda baten, Roke deunaren imajina dago. Zurezko irudi honetan Roke deuna zutunik bere anken gainean txakur bat dauala agertzen jaku. Esan dogunez dan-dana dago zurez egina. Ezkerreko ankan dituan zauriak erakusten deuskuz.

Agerkundearen Kuadrúa. Loiolako Inazio Deunaren Imajina:

Iparralderantz dagoan atearen ezkerretatik. Roke deunarena dagoan aurrez-aurreko horman Agerkundearen koadrua dogu, albo banatan harrizko baldatxo txiki batzuen gainean, burdinezko kandelantzi bi dituala.

Anton Deunaren Imajina: Aldare-aurrean eta ezkerreko hormaren gorengo aldean harri baten gainean Anton Deunaren zurlanduzko imajina dogu.

Sagrarioa: Aurrezko horman, ezkerretara eta zingarriz egindako harrizko baldatxo baten gainean Sagrarioa dago. Zurezko kaixatxo da eta beronen eskuinaldean elektrizitatez dabilen lanparea dogu, burdinlanduzkoa berau.

Gurutzekoa: Erdi inguruan eta aldare ostean, horman dagozan leiho txiki biren artean zurezko gurutzeko bat dogu. Bere ezkerrean elektrizitateko zuzu itxuraz, burdinezko lanparea dago.

Begoñako Ama Birjinaren Imajina: Aurreko horma berberaren eskuinaldean Ama Birjinaren imajina dago jezarrita, Jesus umea altzoan daukala. Hormak egiten dauan zulotxo baten erdi-sartuta dago harrizko baldatxo baten datzala. Honen azpian eta hormeari josita zur zatitxo bat dago "AGUR MARIA" bertan irarrita daukala.

Guzti honen eskuinaldean, hormeari deusan argi biko kandelontzia dago.

Aldare-aurrean eskuinaldean, leihopean, hormatik eskegita Roke deunaren baseritik ekarritako bustarria dogu. Bustarriean organua eta organutik hurran lorontzia ikusi daikegu. Bere azpia, ermitak antxina euki eban ur-pontearen zati bategaz egina dago.

Habediari eutsiten dagozan harri-landuzko zuta-beetan tresna ezberdin batzuk dagoz eskegita.

Gurutze-Bidea: Ermitak ba eban gurutze-bidea. Berrikuntza- lanetan kendu egin eben. Honegaz batera, gurutze-bidea, Santa Ana parrokiatik Ermitara eroan zaneke agiria dakartsuegu.

Gurutze-bidea galduta dago gaur egun.

Lourdes-eko Ama Birjinaren Imajina: Koruan, zapi zuri batez estalirik Durango-ko Nevers mojen eleizatik ekarritako Lourdes-ko Ama Birjinaren imajina dago.

Altzariak:

- Bizkardun 20 aulki (barriak).
- Bizkardun 8 aulki (antzinakoak).
- Bizkardun 6 aulki.
- Butanozko 6 berogailu.
- 17 belau-aulki, batzuk euren jabeen izena idatzirik daukiela.
- Organu bat (Oraintsu erositakoa).
- Aulkitxo bat.
- Benetako lorekin betetako lorontzi bi.
- Dirua biltzeko otzara bat.
- Intsentsu-ontzi bat.
- Oinarria harrizkoa, eta beste guztia zurezkoadaukan atril bat.
- Harrizko lorontzi bi "lume-landarekin".
- Loraz beteriko otzara.
- Bizkardun jezarleku bat.
- Zur-iluneko bizkardun 5 aulki.
- 5 aulki balusa urdinez jantziak eta zuriz margotuak (ezkontzetan erabilten dira).
- Kandela haundi bat.
- Kandela txikiago bat.
- Aitor-leku bi.
- Aintxinako gorde-lekua.
- Erropa gorde-leku modernoa.

ZAINTZE EGOERA Ermitaren barriztea

Ermita oso polita da, neurri ederrekoa. Orain amasei urte barriztu eben.

Berrikuntza lanetan ondorengoak hartu eben parte: auzokoak eta Aranbarri eta Larrea Jesuitak, euren ikastetxeko ikasle batzuk lagundurik.

Coro de la ermita.
Vista general.



Antxina, Ermitak hiru aldare ebazan, Roke Deunarena berea, Ebangelioaren aldean Antolin Deunarena, eta Epistolaren aldean Kristobal Deunarena. Ermita barrizterakoan (1971.ean) aspalditik bere altaretan egozan Antolin eta Kristobal Deunaren irudiak erre egin ziran. Lorentzo Deunaren beste irudi bat be erre egin eben. Ermita ondoko auzoko batek hauxe dinost:

"Orain urte batzuk, San Juan egunean santuak erre ziran (San Kristobal, San Antolin, San Lontzo). Aita Larreak dana bota gura eban. Gure aitak egundoko disgustoa hartu eban santuak erre ebezanean".¹

JAIEGUNA, GURTZEA ETA ELEIZKIZUNAK

Ermitaren Jaia: Ermitaren jai nagusia Agorrilaren 16an izaten da, San Roketan. Jaien aurretik San Rokeren bederatzi-urrena ospatzen da.

Jaia, kanpai hotsaz eta bolanderak jaurtiz hasten da, Roke deunaren besperan. Roke deunaren jai-egunean txistulariek "pasakailea" egiten dabe goizeko 10etan. Gero, Meza Nagusia izaten da eta urtetzerakoan Ermita ondoko landetan ezpatadantzariak jantzan egiten dabe. Lurretako dantzari taldeak etorten dira jantzan egitera. Azkenaldi honetan bertsolari saioak ere ba dira. Arratsaldean umeentzako jolasaldiak egoten dira, ermita ondoko landan.

Erromerira jende piloia etorten da, auzokoak eta Durangoarrak be. Antxina erromeria gabaz amaitzen zan eta gehien entzuten zana txistu ta tanboril eta akordeoi soinua izaten zan. Gaur egun musika-taldeak dira erromerietan jotzen dabenak, jaia goizalderarte luzatuz.

Aspaldi honetan, erromeria auzoko gazteriak antolatzen dau. Edariak eta saltzeko txozna bat ipinten dabe. Jaiak prestatzeko auzokoek ere dirua emoten deutsie.

Roke Deunaren bezpera: Antxina jai bezperan makal baten bila joaten ziran "DONILATZA" eta gau heretan Ermita ondoko landan sartzan eben. "Se elegía el árbol más derecho, a poder ser chopos, por ser más lisos. en la punta colocábamos dos mazorcas de maíz cruzadas y ramas de laurel (artaburuek eta ereñotza), con flores (San Jose lorak). Había premio si alguno conseguía subir a la punta".

Zuritutako zuhaitza inoiz gorde dabe urte batetik bestera ermita barruan.

Bezperak: Noticias Históricas de Tavira de Durango liburuan joandako mendean Ermitan izandako eleiza-ospakizunen artean ez dogula Beitiak eta Etxezarretak dinoskuezan bezpera- kontuetaz berririk dinoste, nire berri-emoileek:

(1) Aita Larreak, Jesuita bera, Ermitaren zerbitzuan bota eban aldiren bat eta Ermitaren berriztapen-lanak bere ardurapean egon ziran.

"El culto religioso que hay en ella es el que el día 15 de agosto, después de la procesión que se celebra por la tarde alrededor del pórtico de Santa María por la parte de afuera, van los clérigos y cantan vísperas y antifona y a los asistentes se les da 30 rs., los que se reparten con toda igualdad entre ellos...".²

Ermitaren mayordomoak, Candido Celayeta, 1869.eneko kontugarbiketetan, hauxe idazten dau:

"... Por la asistencia a Vísperas de San Roque... 42 rs.".³

Prozesioa: Nire berri-emoileek ez dakie, F.A. Veitia-k azalduta utzi euskun, jaiegunean ospatzen zan prozezioataz ere ezer:

"16 de agosto. Día del Bienaventurado S. Roque. Desde que se erigió la ermita dedicada al glorioso San Roque, que de la Parroquia de Santa María dista como un cuarto de legua próximamente, se hace en su día la procesión a dicha ermita con asistencia de los dos cabildos eclesiástico y secular, y de muchos vecinos de ambos sexos, que también concurren por su devoción a dicho Santo, en su honor se dijo misa diaconada cantada con solemnidad y acto continuo, como el presente año, se dispuso celebrar en obsequio del citado Santo, en dicha Iglesia parroquial, misa solemne con el Señor expuesto y panegirico sermón; se le trasladó en una peana en procesión cantando el himno "Iste confesor" en 5º tono, a la que concurren tantas personas de ambos sexos que jamás se había visto igual asistencia a dicha ermita, y con efecto, a las diez de la mañana del día 16 con el Señor manifiesto, se celebró la misa solemne y el sermón panegirico, reducido éste a manifestar al auditorio que el pecado es la causa de las pestes y calamidades y por consiguiente que, arrepintiéndose el pecador con verdadera contricción al Padre de misericordia, este Señor suspendería el castigo del cólera morbo, y para ello implorase la intercesión del bienaventurado San Roque, protector, abogado y tutelar contra todo género de contagio, a fin de que Dios nuestro Señor nos preservase del mal que tanto hace estremecer".⁴

Antolin eta Kristobal Deunen jaiegunak


Antxina, Ermita honen Diru Kontu Liburutik dakigunez, Irailaren batean Antolin deunaren jaietan eta Uztailaren 10ean, Kristobal deunaren jai egunetan, Letania eta Meza ospatzen ziran Ermitan.

Aitatutako mayordomoak, Candido Celayeta, eta


(2) VEITIA, F.A. y ECHEZARRETA, R. de *Noticias Históricas de Tavira de Durango*. Bilbao, 1967, 91 orr.

(3) *Libro de Cuentas*. "Rendición de cuentas efectuada por el "Mayordomo de la Hermita de San Roque el año 1869".


(4) VEITIA, F.A. de y ECHEZARRETA, R. de. O. C., 147 orr.




ALZADO FRENTE




ALZADO LATERAL




PLANTA



Sección A-B



	Instituto LABAYRU Departamento de ETNOGRAFIA
Ermitea:	San Roke
Localidad:	Durango
Fecha:	I-85 Dibujado por: A. Arcegi

harrezkero beste zaindari batzuk ere, gastu berdinan idazten dabe euren lehen aitaturako kontu-garbiketetan:

“Por la letanía y Misa en San Antonio..... 38 rs.”

“Por la función de San Cristóbal al Cavildo.... 31 rs.”

Ramon Etxezarretak dinosku, Antolin eta Kristobal deunen jaiegunetan, goizeko 7 t'erdietan Andra Mari Parrokiatik prozesioa egiten zala, eta bertan izaten zirala eleiz-gizon eta herri-gizonak egun bakoitzeko deunaren ereserkia kantatuz eta doakion altarean Meza diakonada ematen zala. Ostean, Ama Birjinaren letania abesten itzultzen ziran izendatutako parrokiara.

Azken urteotan, Durangoko txoferren batzuk, Kristobal jaiegunean Ermitan ateratzen eben Meza-tara joaten zirala dinoste.

Gaur egunean, ez dago Antolin eta Kristobal deunen omenezko eleizkizunik.

Erramu-eguna: Erramu-egunean, ereintz-erramuak bedeinkatzen dira Mezatan eta eleiz-bira laburra egiten da. Ate batetik urten eta bestetik sartzen dira.

Baserri batzuetan ereintza soloan ipinteko ohitura urte asko dala galdu zan. Kantuen eta otoitzen arduradun egoana, urte guztian zehar lan honen pentzura egoan zaina edo serora zan.

Errogatibak: Santa Ana parrokitik San Roke Ermitarainoko bidean latinez esandako letanietan joaten zan. Abadea mezatarako jantzita joan eta meza-mutilak gurutzea eroian.

Letanietara Durangoko Udal-arduradunak eta fedun asko joaten ziren.

Roke Deunaren Imajinagaz egindako errogatibak: Nire barri-emoile batzuk gogoratzen dabenez batzuetan egin izan da euria eskatzeko errogatibaren bat, Roke Deunaren imajina Santa Ana parrokiara eroanda.

Jose Luis Zubillagak, Ermita horretako auzoka izandakoak

“Pues médico eres divino
con prodigiosas señales,
Libranos de peste y males,
Roque santo peregrino”.
abesten ebela gogoratzen dau.

“Misioi” aldietan 1955.aren inguruan prozesioan eroaten eben Roke deunaren imajina “Kabillu” izeneko iturrira arte.

Ezkontzak: Azken urteotan ospatu dira ezkontzaren batzuk ermita honetan.

Lehen jaunartzeak: Honetarikoak ere ospatu dira.

Kanpaiak: Gaur egunean kanpai-hotsa entzuten

danean Mezea edo San Roke auzoko edo inguruetako San Andres eta Orozketa auzoetako baten heriotza iragarteko izaten da.

Antxina auzokoaren bat hiltzen zanean hirutan jotzen ziran kanpaiak: lehenengoz, heriotza gertatzen zanean, bigarren, arratsaldeko hiruretan eta beste baten, entierrokoak pasatzerakoan edo hilotza base-ritik ataraten ebenean. “Il-kanpaine” deitzen eutsoen honi.

Orain urte asko galdutako ohiturea zan, Bariku Santuan arratsaldeko hiruretan eta Pazko Egunez kanpaiak jotea.

Hilobiak: Nire berri-emoileak Ermita barruan, erdi-aldean, hilarri handi bataupean hilobiak dagozala dinoe.

ERMITAREN ZAINTZA

Diru kontu liburuak dinoskenez, antxina Ermitaren pentzura zaindari bat egoan. Hau hil arte, 1950. urtean, ermitaren ardura ebenak, Andresa Zelaieta (G.B.) eta bere sendikoak ziran. Gaur egun auzokoek, antxinatik ohitura danez, moja bi dabez ermitaren arduradun. Serorak urtero aldatzen dira San Rokean, eta auzokoen artean aukeratzen dira.

Euren ardurapean dabe Ermitaren garbitasuna eta diru-zaintza.

Ermitaren giltza bere ondoan dagoan San Roke baserrian eukiten dabe.

“San Roke” Nekazari Alkartea: Urte batzuetatik hona “San Roke” izeneko nekazari-alkartea dogu. Alkartearen kontu-liburua orain bost urte bota eben “Kabillu” deritxon baserriko Joxe Imanezek dauka.

DOKUMENTAZIOA

AHEV; Durango-Santa Ana; 4-3. Libro de la ermita de San Roque: Cuentas; 1869-1947.

AMD. Libro de la ermita de San Roque: Cuentas; 1721-1798 y 1798-1809.

BIBLIOGRAFIA

VEITIA F. de y ECHEZARRETA, R. de. *Noticias históricas de Tavira de Durango*. Bilbao, 1967.

ANONIMO. Novena al Glorioso abogado contra la peste San Roque. Madrid, 1935. Gozos del glorioso San Roque, 22-24 orr.

BARRI-EMOILEAK

Alberdi, M^a Victoria. Bustintza baserrikoa (81 urte).

Imaz, Josefina. Durango aldeko San Roke baserrikoa.

Jayo, María. Etxebarri baserrikoa.

Uranga, Hilario. Durangotarra.

Zubillaga, Jose Luis, Momotzo-goikoa baserrikoa.

(1983.eko Apirila eta 1987.eko Maiatza).